- d) Por falta de pago del canon y de las tasas establecidas en la correspondiente Ordenanza Fiscal o en el correspondiente pliego de condiciones económico-administrativas.
- e) Por renuncia expresa del/de la titular.
- f) Por apariencia de dejación de la concesión o abandono del mantenimiento de la sepultura, entendiéndose como tal la apariencia de no haber utilizado ni haber efectuado las labores mínimas de mantenimiento de la sepultura. Para poder efectuar la reversión por este motivo, se requerirá la tramitación del oportuno expediente



## Andoingo Udala

- g). Hilobi eskubidea Arautegi honetan xedatutakoaren aurka erabiltzen denean.
- h). Hilobi eskubide hori Arautegi honek baimendutakoak ez diren beste pertsona batzuei eskualdatzen zaienean.
- g) administrativo.
- g) Por el uso del derecho funerario en contra de lo dispuesto en el presente Reglamento.
- h) Cuando el derecho funerario sea transmitido a personas distintas de las autorizadas por este Reglamento.

### **23. artikulua. «Bizien artean» eskualdatzeko debekua.**

1. Hilobi eskubideak ezin eskualda daitezke «bizien artean».
2. «Mortis causa» eskualdatzeak Arautegi honetan aurreikusitako baldintzetan onartuko dira.
3. Hilobi eskubide baten titular denak onuradunak izendatu ahal izango ditu bera hil ondorenerako. Berariaz onuradunik izendatzen ez bada, hilobi eskubide horren titulartasuna testamentuaren arabera titularraren oinordeko direnei eskualdatzen zaiela ulertuko da, eta horrelakorik ezean, legeria zibilean aurreikusitako ondorengotza ordenaren arabera eskualdatuko da. Eskubide bera duten zenbait oinordeko egonez gero, hilobi eskubidearen titularkidetasuna onartuko da, bertako titular guztiek horietako baten alde uko egitearen kalterik gabe. Titular aniztasuna izanez gero, horietako batek ordezkatuko ditu gainerakoak Udalaren aurrean, hilobi eskubide horretatik ondorioztatzen diren erabilerak baimentzean. Ordezkari hori espedientearen ageri diren titular gehienek izendatuko dute, eta horien artean adostasunik lortzen ez bada, udalak izendatuko du zozketa bidez.
4. Hilobi eskubidearen titular berriak urtebeteko gehienezko epean hilobi eskubide hori bere izenean eskualdatu dadila eskatu beharko du, dagokion emakida-titulua eta eskualdaketa hori egiaztatzen duten gainerako agiriak aurkeztuz.

### **24. artikulua. Hilobi eskubidea bi ezkontideen alde.**

Hilobi eskubide hori bi ezkontideen izenean eskuratu denean, edo ezkontzazkoa ez den batasun zibil bateko bi kideen izenean, bizirik jarraitzen duena izango da lehenik hildakoaren onuraduna. Bizirik jarraitzen duenak, aldi berean, onuradun berri bat izendatu ahal izango du, aurrez biek batera halakorik egin izan ez balute, biak hil ondorenerako.

### **25. artikulua. Tituluko akatsak, hondatzea edo galtzea.**

1. Titulu bat ematean egin litezkeen izen eta abizen akatsak edo beste edozein eratako akats titularrak hala eskatzen duenean zuzenduko dira, horiek

### **Artículo 23. Prohibición de transmisión “inter vivos”.**

1. Los derechos funerarios serán intransmisibles por actos «inter vivos».
2. Se reconocerán las transmisiones «mortis causa», en los términos previstos en este Reglamento.
3. Todo/a titular de un derecho funerario podrá designar beneficiarios/as para después de su muerte. En defecto de nombramiento expreso de beneficiario se entenderá transmitida la titularidad del derecho funerario a los/las herederos/as testamentarios/as del/de la titular, y, en su defecto, se transmitirá por el orden de sucesión previsto en la legislación civil. En el supuesto de existir varios/as sucesores/as de igual derecho, se admitirá la cotitularidad del derecho funerario, sin perjuicio de que todos/as los/las titulares del mismo renuncien a favor de uno de ellos/as. En el supuesto de existir una pluralidad de titulares, uno/una de ellos/as representará al resto frente al Ayuntamiento, a la hora de autorizar los usos que se deriven del derecho funerario. Dicho/a representante será designado por la mayoría de titulares recogidos en el expediente y, en caso de no lograrse un acuerdo entre ellos/as, será el Ayuntamiento quien lo/la designe por sorteo.
4. El/la nuevo/a titular del derecho funerario deberá solicitar en el plazo máximo de un año año la transmisión del derecho funerario a su nombre, compareciendo con el título de la concesión correspondiente y el resto de los documentos justificativos de la transmisión.
- 5.

### **Artículo 24. Derecho funerario en favor de cónyuges.**

Quando el derecho funerario haya sido adquirido a nombre cónyuges, o de miembros de una unión civil no matrimonial, el/la superviviente se entenderá beneficiario/a del premuerto/a. El/la superviviente, a su vez podrá nombrar un nuevo/a beneficiario/a, si no lo hubiese hecho conjuntamente con anterioridad, para después del óbito del cualquiera de ellos/as.

### **Artículo 25. Errores del título, deterioro o extravío.**

1. Los errores de nombre, apellidos o cualesquiera otros que se hubieran cometido en la emisión de un título, se corregirán a instancias del titular



## Andoaingo Udala

justifikatu eta egiaztatu ondoren. Gainera, egindako aldaketa hori dagokion Erregistro Liburuan agertaraziko da.

2. Edozein arrazoi dela medio, titulu bat hondatuta geratuz gero, beste bat egin ahal izango da, hondatutakoa aurkeztu ondoren.
3. Lapurtu edo galduz gero, titularraren aldeko ale bikoiztu bat egiteari ekingo zaio, dagokion espedientea izapidetu ondoren.

### **26. artikulua. Titularren obligazioak.**

Panteoi, nitxo, hezurtegi eta kolunbarioen erabilerarako hilobi eskubideen titular direnen obligazioa da esandako elementu horiek higiene, apaindura eta kontserbazio baldintza egokietan edukitzea.

#### *II. KAPITULUA. Banakako ehorzketa-nitxoak*

### **27. artikulua. Banakako ehorzketa-nitxoaren ezaugarriak eta kopurua.**

1. Banakako ehorzketa-nitxoak osasun arauetara eta Kanposantuetako Osasun Zaingoaren Arautegian eskatutako neurrietara egokituko dira.
2. Udalak, udalerriko premiak ziurtatzeko nahikoa izango den ehorzketa-nitxoaren kopuru bat prestatuko du.
3. Nitxoak hurrenez hurren zenbakituko izango dira.

### **28. artikulua. Banakako ehorzketa-nitxoaren erabilerarako hilobi eskubidea.**

Banakako ehorzketa-nitxoaren erabilerarako hilobi eskubidea gorpuak edo gorpuzkinak berehala hilobiratzeko xedez emango da, 10 urteko epe baterako, eta gorpuak hobiratu edo hobiz aldatzeko dagokion baimena emandakoan eskuratuko da, interesatuak hala eskaturik.

### **29. artikulua. Gorpuak hobiratzeko baldintzak.**

1. Gorpuak banakako ehorzketa-nitxoetan hobiratzeko beharrezkoa da, gutxien-gutxienik, ondorengo baldintzetako bat betetzea:
  - a). Hildakoa Andoaingo udalerrian jaioa izatea.
  - b). Hildakoa Andoaingo udalerriko erroldan sartua egotea hil den unean.
  - c). Hildakoa Andoaingo udalerrian jaiotako edo

previa su justificación y comprobación. Además se hará constar la modificación efectuada en el correspondiente Libro Registro.

2. Cuando por cualquier motivo un título sufre deterioro podrá expedirse otro igual previa entrega del deteriorado.
3. En caso de sustracción o pérdida, se procederá a la expedición de un duplicado a favor del/de la titular, previa la tramitación del oportuno expediente.

### **Artículo 26. Obligaciones de los/las titulares.**

Es obligación de los/las titulares de los derechos funerarios de uso de panteones, nichos, osarios y columbario, el mantenimiento de dichos elementos en las debidas condiciones de higiene ornato y conservación.

#### *CAPÍTULO II. Nichos de enterramiento individual.*

### **Artículo 27. Características y número de los nichos de enterramiento individuales.**

1. Los nichos de enterramiento individuales se ajustarán a las normas sanitarias y a las dimensiones exigidas en el Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria.
2. El Ayuntamiento dispondrá de nichos de enterramiento en número suficiente para garantizar las necesidades del municipio.
3. Los nichos serán correlativamente numerados.

### **Artículo 28. El derecho funerario de uso de los nichos de enterramiento individuales.**

El derecho funerario de uso de los nichos de enterramiento individuales se concederá para el inmediato depósito de cadáveres o restos, por un plazo de 10 años, y se adquirirá por la emisión, a solicitud del/de la interesado/a, de la correspondiente autorización para la inhumación o traslado de cadáveres.

### **Artículo 29. Requisitos para la inhumación de cadáveres.**

1. Para la inhumación de cadáveres en un nichos de enterramiento individuales es preciso que se cumpla, al menos, uno de los siguientes requisitos:
  - a) Que el/la difunto/a sea natural del municipio de Andoaingo.
  - b) Que el/la difunto/a estuviese empadronado/a en el municipio de Andoaingo en el momento del fallecimiento.
  - c) Que el/la difunto/a sea ascendiente o



## Andoaingo Udala

bertako erroldan sartutako pertsonen lehen mailako aurreko edo ondorengo zuzena izatea edo bigarren mailako zehar-ahaidea izatea.

d). Andoaingo udalerrian hil izana.

2. Nolanahi ere, baldintza horiek betetzen ez dituzten gorpuak hilobiratzea erabaki ahal izango du Udalak, zerbitzuaren xehetasun eta premien arabera.

### **30. artikulua. Ehorzketak egiteko modua.**

1. Nitxoetan modu antolatatu batean egin beharko dira ehorzketak, horien numerazioari jarraiki.
2. Ehortzi eta berehala, zerbitzuaren arduradun edo esleipendun den pertsonalak itxitura bat jarriko du, nitxoko sarreraren estankotasuna bermatuko duena.

### **31. artikulua. Apaingarriei buruzko xedapena.**

1. Emakidaren titularrak behin betiko plaka apaingarria jarriko du.
2. Plaka horren materiala Carrara motako marmol zuria izango da.
3. Zabaleran eta alturan izango dituen neurriak nitxoaren aurrealdeak dituenei egokituko zaizkie.
4. Plaka kanpoko ertzaren arrasean jarriko da eta bere perimetro guztian 1 cm. x 1 cm.ko behegune bat izango du, Arautegi honen II. Eranskinean jasota dagoen bezalaxe.
5. Plaka horrek zenbait inskripzio grabatu eduki ditzake. Inskripzio horien kolorea beltza izango da. Haurrei dagozkien inskripzioak urre kolorekoak izan daitezke.
6. Plakak, halaber, neurri txikiko irudi grabaturen bat eduki ahal izango du.

## III. KAPITULUA. Panteoiak

### **32. artikulua. Panteoiei buruzko hilobi eskubidea.**

1. Panteoiak eraikitzeko lur-sailen gaineko edo Udalak eraikitako panteoien gaineko hilobi eskubidea 99 urteko gehienezko epealdi baterako emango da, eta Udalak, batzarraren erabakiz, epealdi hori murriztu ahal izango du hurrengo emakidetan, egoki iritziz gero.
2. Emakidaren epealdia igaro ondoren, iraungita geratuko da hilobi eskubidea eta Udalak bere

descendiente directo en primer grado o esté en segundo grado de colateralidad con respecto a personas naturales del municipio de Andoain o empadronadas en el mismo.

d) Que haya fallecido en el municipio de Andoain.

2. No obstante el Ayuntamiento podrá acordar la inhumación de cadáveres que no cumplan estas condiciones, atendiendo a las circunstancias y necesidades del servicio.

### **Artículo 30. Forma de realizar los enterramientos.**

1. Los enterramientos en los nichos deberán realizarse de forma ordenada siguiendo la numeración de los mismos.
2. Inmediatamente después de la inhumación, el personal encargado o adjudicatario del servicio colocará un cierre que garantice la estanqueidad de la entrada al nicho.

### **Artículo 31. Disposición ornamental.**

1. El/la titular de la concesión colocará la placa ornamental definitiva.
2. El material de dicha placa será de mármol blanco tipo Carrara.
3. Las dimensiones en altura y anchura se ajustarán a las del frente del nicho.
4. La placa se colocará a ras del borde exterior y tendrá un rebaje en todo su perímetro de 1cm.X1 cm., tal y como se recoge en el Anexo II del presente Reglamento.
5. La placa podrá llevar inscripciones grabadas. El color de dichas inscripciones será negro. Las inscripciones correspondientes a los niños podrán ser doradas.
6. La placa podrá llevar algún motivo grabado de pequeñas dimensiones.

## CAPÍTULO III. Los panteones.

### **Artículo 32. Derecho funerario sobre los panteones.**

1. El derecho funerario sobre parcelas de terreno para la construcción de panteones o sobre los panteones construidos por el Ayuntamiento se otorgará por el plazo máximo de 99 años, pudiendo el Ayuntamiento, mediante acuerdo plenario, reducir este período para posteriores concesiones si así lo considera oportuno.
2. Transcurrido el plazo de la concesión, quedará extinguido el derecho funerario y el Ayuntamiento



## Andoingo Udala

egingo du egindako eraikuntza, horren titularrak inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

3. Hala izanez gero, eta hobiratu ondoren 10 urte igaro baldin badira, gorpuzkinak hilobitik aterako dira Arautegi honetan xedatutakoarekin bat etorritz. Horiek hobiratu zirenetik 10 urte igaro ez badira, gozpuzkinak beste hilobi batera lekualdatuko dira.

### **33. artikulua. Eskubidea eskuratzeko unea.**

Panteoien gaineko hilobi eskubidea eskuragai dauden panteoien zozketa bidez esleitu da horretarako egindako deialdi publikoan ezarritako epean alde aurretik eskatu dutenen artean.

### **34. artikulua. Udalak eraikitako panteoietako elementu apaingarriak.**

1. Plaka grabatuak.
  - a). Lehendik dagoen hilarriaren gainean plaka grabatuak jarri ahal izango dira.
  - b). Plaka horien materiala Carrara motako marmol zuria izango da.
  - c). Plaka horren neurriak honakoak izango dira: 100 cm. luzeran, 70 cm. zabaleran eta 2 cm.ko lodieran.
  - d). Plaka hori goiko ertzetik 25 cm. jarriko da, estalkiaren zabaleraren erdi-erdian, alegia, alde bakoitzean 20 cm.ko tarte bat utziz, Arautegi honen III. Eranskinean jasota dagoen bezalaxe.
  - e). Plaka horrek inskripzio grabatuak edukiko ditu, eta hori izango da bere helburu eta funts bakarra. Inskripzioen kolorea beltza izango da.
  - f). Espaziorik ez balego eta beharrezkoa balitz inskripzio berriak egitea, lehenengoaren segidan neurri eta ezaugarri bereko beste plaka bat jarri ahal izango da, udalak horretarako baimena eman ondoren. Beheko ertzerainoko tarteak plakaren eta hilarriaren neurriek behartzen dute, eta 25 cm.koa izango da.
  - g). Plakak latorrizko torlojuen bidez lotuko dira hilarrietan, inskripzioak egiteko altxatu ahal izan dadin.
2. Elementu bertikalak.
  - a). Panteoi bakoitzaren burualdean elementu bertikal bat jarri ahal izango da.
  - b). Elementu horren materiala ondorengo hauetakoren bat izango da.

hará suya la construcción realizada, sin que su titular tenga derecho a indemnización alguna.

3. En este supuesto y siempre que hayan transcurrido 10 años desde su inhumación, los restos serán exhumados conforme a lo dispuesto en este Reglamento. En caso de no haber transcurrido 10 años desde su inhumación, los restos serán trasladados a otra sepultura.

### **Artículo 33. Momento de la adquisición del derecho.**

El derecho funerario sobre los panteones se otorgará mediante adjudicación por sorteo de los panteones disponibles entre quienes previamente lo hayan solicitado durante el período establecido en la convocatoria pública realizada al efecto.

### **Artículo 34. Elementos ornamentales en panteones contruidos por el Ayuntamiento.**

1. Placas grabadas.
  - a) Se podrán colocar sobre la losa existente placas grabadas.
  - b) El material de dichas placas será de mármol blanco tipo Carrara.
  - c) Las dimensiones de dicha placa serán de 100 cms. de longitud por 70 cms. de anchura, con un espesor de 2 cm.
  - d) La placa se colocará a 25 cms. del borde superior y centrada en el ancho de la tapa, es decir dejando una banda a cada lado de 20 cm, como queda recogido en el Anexo III del presente Reglamento.
  - e) La placa llevará inscripciones grabadas siendo éste su único objeto y fundamento. El color de dichas inscripciones será negro.
  - f) Si se hubiera agotado el espacio y fuera preciso hacer nuevas inscripciones podrá disponerse, previa autorización municipal, otra placa de iguales dimensiones y características colocada a continuación de la primera. La distancia al borde inferior viene obligada dadas las dimensiones de la placa y de la losa, y es de 25 cm.
  - g) La sujeción de las placas a la losa se hará mediante tornillos de latón, con el fin de que pueda ser levantada para realizar inscripciones.
2. Elementos verticales.
  - a) Se podrá colocar un elemento vertical en la cabecera de cada panteón.
  - b) El material de dicho elemento será uno de los siguientes:



## Andoingo Udala

- Floresta motako hareharria.
  - Deba motako kararri grisa.
- c). Jarri beharreko elementua azalekoa izango da, Arautegi honen IV. Eranskinean jasotzen diren ondorengo oinarrizko mota hauetako baten arabera. Alturan eta zabaleran izango dituen gehieneko neurriak, kasu bakoitzean, aipatutako Eranskin horretan ezarritakoak izango dira. Lodierak 8 eta 10 cm. bitartekoa izan behar du.
- d). Elementu bertikala oinarri baten gainean jarriko da, eta beraz, zenbaki honen b) apartatuan deskribatutako material batekoa izango da.
- e). Oinarriaren gehieneko zabalera, kasu guztietan, 65 cm.koa izango da.
- f). Oinarriaren altura aldatu egingo da kasuen arabera, panteoiak parez pare doazelako luzeetarako norabidean, burualdeak elkarri begira dituztela eta estalkiak altura ezberdinetan. Oinarriaren goiko alde betiere hilarririk altuenaren gainetik 5 cm. irteten dela jarriko da, Arautegi honen V. Eranskinean adierazten den moduan.
- Arenisca tipo floresta.
- Caliza gris tipo Deva.
- c) El elemento a colocar será superficial atendiendo a uno de los siguientes tipos básicos que se recogen en el Anexo IV del presente Reglamento. Las dimensiones máximas en altura y anchura serán, en cada caso, las establecidas en el citado Anexo. El espesor deberá estar comprendido entre los 8 y los 10 cms.
- d) El elemento vertical se dispondrá sobre una base que será de uno de los materiales descritos en el apartado b) del presente número.
- e) La anchura máxima de la base será en todos los casos de 65 cms.
- f) La altura de la base variará según los casos debido a que los panteones van pareados en dirección longitudinal, teniendo las cabeceras enfrentadas y las tapas a distinta altura. La altura será tal que la cara superior de la base quede siempre 5 cm. por encima de la losa más alta, como se indica en el Anexo V del presente Reglamento.

### **35. artikulua. Panteoiak eraikitzekeo lur-zatiak.**

1. Panteoiak eraikitzekeo lur-zatiak jartzen baldin badira, hilobi eskubidearen titularraren konturakoa izango da hori. Horri begira, Udala Erregistroan dagokion obra-baimenerako eskabidea aurkeztuko da, egoki den proiektuarekin batera, baita aurrekontua eta kasu bakoitzaren arabera eskatzen den beharrezko gainerako dokumentazioa ere.
2. Obra-baimena ematerakoan panteoi horien edukiera zehaztuko da, bertan dauden apal edo maila kopuruaren arabera egin beharreko ehorzketak jakiteko. Halaber, obrak hasi eta bukatzeko epea adieraziko da. Epe horietako edozein igaro ondoren, baimena eta hilobi eskubidea iraungita geratuko dira, eta lur-zati hori Udalarengana itzuliko da egindako eraikuntza guztiekin, inolako ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.
3. Era guztietako obrak egiteko, baita panteoiak konpontzekoak ere, beharrezkoa izango da alde zuzenetik onestea eta baimena ematea, udal organo eskudunak hala erabaki ondoren.
4. Espedienteak Hirigintza eta Obra zerbitzuan izapidetuko dira, arauzkotzat jotzen diren txosten

### **Artículo 35 . Parcelas destinadas a la construcción de panteones.**

1. En el caso de que se dispongan parcelas para la construcción de panteones, ésta será de cuenta del/de la titular del derecho funerario. A estos efectos presentará en el Registro municipal la correspondiente solicitud de licencia de obras, acompañada del proyecto pertinente, así como presupuesto y demás documentación necesaria que en su caso se le exija.
2. En la concesión de la licencia de obras se especificará la capacidad de dichos panteones en orden a las inhumaciones por el número de baldas o estantes que aquellos contengan. Asimismo, se expresará el plazo de iniciación y terminación de las obras. Transcurrido cualquiera de dichos plazos, caducará la licencia y el derecho funerario, revertiendo la parcela al Ayuntamiento con todas las construcciones realizadas y sin derecho a indemnización alguna.
3. Toda clase de obras, aún las de reparación de los panteones, requerirán la previa aprobación y otorgamiento de licencia por acuerdo del órgano municipal competente.
4. Los expedientes se tramitarán en el servicio de Urbanismo y Obras, incluyendo los informes técnicos que se consideren preceptivos.



## Andoingo Udala

teknikoak barne.

5. Obrak amaitu ondoren, eraikitzaileak eta, horiek ezean, emakidadunak beharturik egongo dira erabilitako materialek sortutako lurra, harriak, zaborrak eta, oro har, edozein hondakin erretiratzera. Halaber, beharturik daude ibilgailuekin edo beste edozein elementurekin kale, instalazio, eraikin, etab.etan egindako kalteak konpontzera ere.

### **36. artikulua.Panteoien edukiera.**

Panteoiaren edukierak berak ahalbidetzen duen gorpu kopurua hobiratu ahal izango da panteoian, eta hilobi eskubidearen titularraren ahalmena izango da emakida amaitu arte haiek bertan uztea, gorpuzkinek hartzen duten lekua murriztea panteoi bereko hezurtegien gera daitezen epe berean, edo hobitiki ateratzea arauzko baimenak eskatu ondoren, eta kontzeptu horiengatik dagozkion eskubideak ordaintzea, ordenantza fiskalekin bat etorritz.

### **37. artikulua.Panteoiak ireki eta ixtea.**

Panteoi bat ireki eta ixteko hilarriak mugitu behar direnean, hilerriko pertsonalak edo zerbitzuaren esleipendunak egingo du.

## IV. KAPITULUA. Kolunbarioak.

### **38. artikulua.Xedea.**

Kolunbarioak esaten zaie gorpuzkinen ontziak jasotzen dituzten aretoei, eta horien helburua, halakoak zaindu eta gordetzea da, nitxoetatik edo panteoietatik gorpuak edo gorpuzkinak atera edo erraustu ondoren.

### **39. artikulua.Kolunbarioen emakida-epealdia.**

Hezurtegien erabilerari buruzko emakida jasotzen duen hilobi eskubidea 10 urtetarako epe batez emango da.

### **40. artikulua.Ehorzketen gorpuzkinak gordetzeko modua.**

1. Kolunbarioetan egiten diren hobiraketak modu antolatua batez egin beharko dira, horien numerazioari jarraiki.
2. Hobiratu eta berehala, horren ardura duen pertsonalak itxitura bat jarriko du kolunbarioaren sarreraren estankotasuna bermatzearren.

5. Terminadas las obras, los/las constructores/as o en su defecto los/las titulares del derecho funerario correspondiente, vendrán obligados/as a retirar las tierras, piedras, escombros y en general cualquier residuo de los materiales empleados. También vendrán obligados a reparar cualquier desperfecto que con vehículos o cualquier otro elemento hayan causado en las calles, instalaciones, construcciones, etc.

### **Artículo 36. Capacidad de los panteones.**

En los panteones podrán inhumarse el número de cadáveres que la capacidad del panteón permita, siendo facultad del/de la titular del derecho funerario dejar aquéllos hasta la fecha en que finalice la concesión, reducir los restos para que queden en el osario del mismo panteón hasta la misma fecha, o exhumarlos previas las autorizaciones reglamentarias y pago de los derechos que correspondan por tales conceptos, de conformidad con las ordenanzas fiscales.

### **Artículo 37. Apertura y cierre de los panteones.**

El desplazamiento de las losas para apertura y cierre de cada panteón se realizará por parte del personal del cementerio o por el adjudicatario del servicio.

## CAPÍTULO IV. Los columbarios.

### **Artículo 38. Objeto.**

Se denominan columbarios a los habitáculos receptores de los estuches de restos y tienen por objeto custodiar y guardar los mismos una vez producida la exhumación de los nichos o panteones o la incineración de cadáveres o restos.

### **Artículo 39. Período de concesión de los columbarios.**

El derecho funerario consistente en la concesión del uso de los osarios se concederá por un período de 10 años.

### **Artículo 40. Forma de depositar los restos los enterramientos.**

1. Los enterramientos en los columbarios deberán realizarse de forma ordenada, siguiendo la numeración de los mismos.
2. Inmediatamente después de la inhumación, el personal encargado o el adjudicatarios del servicio colocará un cierre que garantice la estanqueidad de la entrada al columbario.





## Andoingo Udala

### **41. artikulua. Apaingarrien antolamendua.**

1. Emakidaren titularrak behin betiko plaka apaingarria jarriko du.
2. Plaka horren materiala Carrara motako marmol zuria izango da.
3. Alturan eta zabaleran dituen neurriak kolunbarioaren aurrealdeak dituenei egokitu zaizkie.
4. Plaka kanpoaldeko ertzaren arrasean jarriko da eta perimetro guztian 1 cm. x 1 cm. ko beheragunea izango du, Arautegi honen I. Eranskinean jasotzen den moduan.
5. Plaka horrek zenbait inskripzio grabatu eduki ditzake. Inskripzio horien kolorea beltza izango da. Hurrei dagozkien inskripzioak urre kolorekoak izan daitezke.
6. Plakak, halaber, neurri txikiko irudi grabaturen bat eduki ahal izango du.

### *V. KAPITULUA. Hobi komuna*

#### **42. artikulua. Hobi komunaren izena.**

Hobi komuna esaten zaio, dagokion hilobi eskubidearen gehieneko epea igaro ondoren familiarrek eskatu ez dituzten gorpuzkin guztiak jasotzeko Hilerrian prestatu den espazioari. Helburua gorpuzkinak zaindu eta epe zehazgabe batez gordetzea da, nitxoetatik edo panteoietatik gorpuzkinak atera ondoren.

### *VI. KAPITULUA. Salbuetsitako emakidak*

#### **43. artikulua. Salbuetsitako emakidak.**

- 1.- Udalak nitxo kopuru jakin bat edukiko du dagozkion tasak eta kanona ordaintzeko baliabide ekonomikorik ez duten hildako herritarrak bertan hobiratuak izan daitezten.
- 2.- Aipatutako nitxo horien erabilera dagozkion tasak eta kanona ordaintzetik salbuetsita geratuko da beraz, zerga-salbuetspenak arautzen dituen udal ordenantzan ezarritakoarekin bat etorritz.

### *VII. KAPITULUA. Hilerria ixtea*

#### **44. artikulua. Hilerria ixtea.**

Edozein arrazoi dela medio, hilobi eskubideen emakida-epea amaitu aurretik hilerria itxi behar izanez gero, titularrek kalte-ordaina jasotzeko

### **Artículo 41 . Disposición ornamental.**

1. El/la titular de la concesión colocará la placa ornamental definitiva.
2. El material de dicha placa será de mármol blanco tipo Carrara
3. Las dimensiones en altura y anchura se ajustarán a las del frente del columbario.
4. La placa se colocará a ras del borde exterior y tendrá un rebaje en todo su perímetro de 1cm. x 1 cm., tal y como se recoge en el Anexo I del presente Reglamento.
5. La placa podrá llevar inscripciones grabadas. El color de dichas inscripciones será negro. Las inscripciones correspondientes a los niños podrán ser doradas.
6. La placa podrá llevar algún motivo grabado de pequeñas dimensiones.

### *CAPÍTULO V. La fosa común.*

#### **Artículo 42. Denominación de la fosa común.**

Se denomina fosa común al espacio habilitado en el Cementerio para recibir todos aquellos restos cadavéricos que no hayan sido reclamados por los familiares una vez transcurrido el plazo máximo del derecho funerario pertinente. Tiene por objeto custodiar y guardar los restos una vez producida la exhumación de los nichos o panteones por un período indefinido.

### *CAPÍTULO VI. Concesiones exentas.*

#### **Artículo 43. Concesiones exentas.**

1. El Ayuntamiento dispondrá de un lote de nichos para que sean inhumados en ellos aquellos vecinos/as difuntos/as que carezcan de recursos económicos para sufragar las tasas y canon correspondientes.
2. La utilización de los citados nichos quedará exenta del pago del canon y las tasas correspondientes, conforme a lo que se establezca en la ordenanza municipal reguladora de los beneficios fiscales.

### *CAPÍTULO VII. Clausura del cementerio.*

#### **Artículo 44. Clausura del Cementerio.**

Si por cualquier motivo hubiere de clausurarse el cementerio antes de finalizar el plazo de concesión de los derechos funerarios, los/las titulares tendrán



## Andoingo Udala

eskubidea izango dute emakida amaitu arte falta den epe horren arabera, eta bakar-bakarrik, ordaindutako tasaren zati proportzionalean, eta beraz, salbuetsita daude ondorio guztietarako emakidadunak burututako obra eta instalazioak.

derecho a ser indemnizados, exclusivamente, por el plazo pendiente de transcurrir hasta la terminación de la concesión y, solamente, en la parte proporcional de la tasa abonada, excluyéndose, a todos los efectos, las obras e instalaciones ejecutadas por su titular.

### V. TITULUA

#### Elementu apaingarri buruzko arau orokorrak

##### **45. artikulua. Udalaren ahalmenak.**

Udalak Arautegi honetan xedatutako apaindura-arauak aldatu ahal izango ditu Alkatezaren edo organo eskuordetuaren ebazpen bidez, dagokion Udal Batzorde Berriemaileak diktamena egin ondoren.

##### **46. Elementu apaingarriak jartzea.**

1. Gauza apaingarriak jartzea alde aurretik udal baimena eskuratzearen menpe dago.
2. Udal baimena eskatzean jarri beharreko elementuen ezaugarriak deskribatuko dira, horiek Arautegi honetan adierazitako baldintzetara egokitzen direla agertaraziz.
3. Udalak elementu apaingarriak jartzeko dagokion baimena emango du, horiek Arautegi honetan xedatutako egokitzen direla egiaztatu ondoren.
4. Udalak Arautegi honetako xedapenen edukari buruz eskatzen den informazio oro erraztuko du.

##### **47. artikulua. Baimenik ez duten gauzak edo elementuak.**

Alkatez agindua emango du hamar eguneko epean baimenik ez duten gauzak edo elementuak erretiratuak izan daitezen, eta agindu hori betetzen ez bada, horiek berehala erretiratzeari ekingo zaio arau-hausleen kontura.

#### Xedapen iragankorra

##### **Bakarra.**

Hilobi eskubide baten titularra Arautegi hau indarrean sartu aurretik hiltzen baldin bada, eskubidearen titular berriak eskubide hori bere alde eskualdatzea eskatu beharko du bost urteko epean, Arautegi hau indarrean sartzen denetik kontatzen hasita. Aipatutako epe hori igaro ondoren, titular berriak ez badu hilobi eskubidea bere alde eskualdatzea eskatu, Arautegi honetako 22. artikuluan xedatutakoa beteko

### TÍTULO V.

#### Normas generales sobre elementos ornamentales

##### **Artículo 45. Facultades del Ayuntamiento.**

El Ayuntamiento podrá modificar las normas ornamentales dispuestas en el presente Reglamento, mediante resolución de Alcaldía u órgano delegado, previo dictamen de la Comisión Informativa Municipal correspondiente.

##### **Artículo 46. Colocación de elementos ornamentales.**

1. La colocación de objetos ornamentales estará sujeta a la previa obtención del permiso municipal.
2. En la petición del permiso municipal se describirán las características de los elementos a colocar, haciendo constar su adecuación a las condiciones expresadas en el presente Reglamento.
3. El Ayuntamiento concederá el correspondiente permiso de colocación de elementos ornamentales una vez comprobado que éstos se ajustan a lo dispuesto en el presente Reglamento.
4. El Ayuntamiento facilitará cuanta información se requiera sobre el contenido de las disposiciones ornamentales del presente Reglamento.

##### **Artículo 47. Objetos u elementos no autorizados.**

Por la Alcaldía se emitirá orden para la retirada en el plazo de diez días de aquellos objetos o elementos no autorizados, procediéndose en caso de incumplimiento, a la retirada inmediata de los mismos con cargo a los/las infractores/as.

#### Disposición transitoria

##### **Única.**

En el caso de que el/la titular de un derecho funerario hubiese fallecido con anterioridad a la entrada en vigor del presente Reglamento, el/la nuevo/a titular del derecho deberá instar el traspaso del derecho a su favor en el plazo de cinco años, a contar desde la entrada en vigor del presente Reglamento. Si transcurrido el citado plazo el/la nuevo/a titular no hubiese instado la transmisión del derecho funerario



## Andoaingo Udala

---

da.

a su favor se estará a lo dispuesto en el artículo 22 del presente Reglamento.

### Azken xedapenak

### Disposiciones finales

**Lehena.**

Arautegi hau indarrean sartu aurretik eskuratutako eskubideak errespetatu egingo dira.

**Primera.**

Se respetarán los derechos adquiridos antes de la entrada en vigor del presente reglamento.

**Bigarrena.**

Arautegi hau, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritako moduan sartuko da indarrean.

**Segunda.**

El presente reglamento entrará en vigor en la forma establecida en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

**Hirugarrena.**

1982ko maiatzaren 21ean Udal Batzarrak onetsitako Pagadigañako Udal Hilerriaren eraikuntza-ordenantza baliogabeturik gelditu da.

**Tercera.**

Queda derogada la ordenanza constructiva del Cementerio Municipal de Pagadigaña, aprobada por el Pleno del Ayuntamiento el 21 de mayo de 1982.

Andoainen, 2000ko apirilaren 17an.

En Andoain, a diecisiete de abril de dos mil.



## Andoaingo Udala

---

### I. ERANSKINA

#### Zein egunetan eta ordutan irekia dagoen jendearentzat eta ehorzketak egiteko

##### *Jendearentzako irekia.*

- Astegunetan: 10etatik 19etara.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan: 10etatik 14etara.

##### *Ehorzketak.*

- Astegunetan: 21ak jo ondoren hobiratzeko aurkezten diren gorpu guztiak depositura eramango dira hurrengo egunean hobiratzeko.
- Igandeetan: Ez da ehorzketarik egingo.
- Jaiegunetan: Ez da ehorzketarik egingo, jarraian bi jaiegun izan ezean, eta horrelakoetan ehorzketak egin ahal izango dira bigarren jaieguneko 12ak arte. Jaiegun horietako bat igandea balitz, igandea baino lehenagoko edo ondorengo jaiegunean ehorzketak egin ahal izango dira 12ak baino lehen.

### ANEXO I

#### Días y horas de apertura al público y de realización de inhumaciones

##### *Apertura al público.*

- Días laborables: de 10 a 19 horas.
- Sábados, domingos y festivos: de 10 a 14 horas.

##### *Inhumaciones.*

- Laborables: todo cadáver que se presente para su inhumación con posterioridad a las 21 horas será conducido al depósito para su inhumación al día siguiente.
- Domingos: no se efectuarán inhumaciones.
- Festivos: no se efectuarán inhumaciones, salvo en el supuesto de 2 días festivos seguidos en el que se podrán efectuar inhumaciones hasta las 12 horas del segundo día festivo. En el caso de que uno de los días sea domingo se podrán efectuar inhumaciones en el día festivo anterior o posterior al domingo con anterioridad a las 12 horas.



## Andoaingo Udala

---

### II. ERANSKINA

Plaka nitxoen itxituraren gainean jartzea

### ANEXO II

Colocación de placa sobre el cierre de los nichos



## Andoaingo Udala

---

### III. ERANSKINA

**Plakak panteoietako hilarrien  
gainean jartzea**

### ANEXO III

**Colocación de placas sobre la losa de los panteones**





## Andoaingo Udala

---

### IV. ERANSKINA

Panteoietako  
mota oinarritzkoenak

elementu

bertikal

### ANEXO IV

Tipos básicos de elemento vertical de panteones





**Andoaingo Udala**

---

**V. ERANSKINA**

**Oinarriaren altura**

**ANEXO V**

**Altura de la base**

